Urnietako udala

**Espte zk** nº expte:
**2024SORO0003**

**URNIETAKO UDALA**
SAN JUAN KALEA 5, 00
20130 URNIETA

| |
|---|
| **JAKINARAZPENA:** Data 2024ko apirilaren 10a duen Sustapen saileko zinegotzi ordezkariaren 359 zenbakidun dekretua. |
| **NOTIFICACIÓN:** Decreto del Concejala delegada del departamento de Promoción nº 359 de fecha 10 de abril de 2024. |

| **Interesduna** Persona interesada | **NAN** DNI |
|---|---|
| URNIETAKO UDALA | P2007700D |

| | |
|---|---|
| **Gaia:** 2024ko Gazte Festetarako kale-salmentako postua jartzeko 3 baimen eta foodtrucka jartzeko baimen 1 emateko prozedura | **Asunto**: Procedimiento para la concesión de 3 autorizaciones de venta ambulante y 1 autorización de foodtruck para las Fiestas de la Juventud de 2024 |

**Jardueraren kokapena:**

a- Kaleko salmenta postuak Geltoki kaleko 2. zenbakiaren aurrealdean.

b- Foodtrucka Lekaio kultur etxearen aurrealdean.

**Egunak:** 2024/05/24tik 2024/05/26ra.

**Aurrekariak:**

Sustapeneko zinegotzi ordezkariaren 2024ko apirilaren 10eko 359 zenbakidun ebazpenaren bitartez, 2024ko maiatzaren 24tik 26ra ospatuko diren Gazte Festetan kale-salmentako postua jartzeko 3 baimen eta foodtrucka jartzeko baimen bat emateko prozedura eta epeak zehaztu ziren.

Onartutako epearen barruan kale-salmentako bi (2) eskaera eta foodtruckerako bost (5) eskaera jaso dira. Kale-salmentako postuen kasuan, hautagaien kokapenaren zozketa egin behar izan da, eta foodtruckaren kasuan baimenaren zozketa egin behar izan da, zozketaren emaitza Udaleko Euskara teknikariaren 2024ko apirilaren 30eko datadun aktan jaso delarik.

**Araudi aplikagarria**

- Kalez-kaleko salmenta arautzen duen Urnietako Udalaren ordenantza, 1994ko urriaren 27an Udalbatzarrak onartutakoa eta 1995eko

**Localización de la actividad:**

a- Puestos de venta ambulante frente al n.º 2 de la calle Estación.

b- Foodtruck frente a la casa de cultura Lekaio.

**Días:** del 24/05/2024 al 26/05/2024.

**Antecedentes:**

Mediante Resolución nº 359, de 10 de abril de 2024, de la Concejala Delegada de Promoción, se determinaron el procedimiento y los plazos para la concesión de 3 autorizaciones para la instalación de puestos de venta ambulante y 1 autorización para instalación de foodtruck en las Fiestas de la Juventud que se celebrarán del 24 al 26 de mayo de 2024.

Dentro del plazo concedido se han recibido dos (2) solicitudes de venta ambulante y cinco (5) de foodtruck. En el caso de los puestos de venta ambulante, se ha tenido que realizar el sorteo de la ubicación de los candidatos y en el caso del foodtruck se ha tenido que realizar el sorteo de la autorización, cuyo resultado ha quedado reflejado en el acta de fecha 30 de abril de 2024 del Técnico de Euskera del Ayuntamiento.

**Normativa aplicable**

- Ordenanza reguladora de la venta ambulante del Ayuntamiento de Urnieta, aprobada por el Ayuntamiento Pleno el 27 de octubre de 1994 y

ESKUae84d2e1-186f-4af5-93c4-03b3955d171a



San Juan, 5 - 20130 Urnieta Gipuzkoa - P2007700D 943 008 000 943 008 037 urnietakoudala@urnieta.eus urnieta.eus

urtarrilaren 31n GAO argitaratua.

- Maiatzaren 27ko 711994 Legea, merkatal jarduerari buruzkoa, 112010 Legea, Txikizkako Merkataritzaren Antolamenduari buruzkoa, eta otsailaren 26ko 19912010 Errege Dekretua, salmenta ibiltaria edo egonekoa ez dena arautzen duena.

- Azaroaren 3ko 33/2003 Legea, Herri-Administrazioen Ondasunari buruzkoa (92.1 artikulua).

**EBAZTEN DUT,**

1. Lekaio kultur etxearen aurrealdean, 2024ko maiatzaren 24tik 26ra ospatuko diren Gazte Festetan zehar janarien salmentako denda-kamioia jartzeko udalaren espazioa modu berezian erabiltzeko baimena ematea ondorengo eskatzaileari:

publicada en el BOG el 31 de enero de 1995.

- Ley 711994, de 27 de mayo, de la actividad comercial, Ley 112010, de Ordenación del Comercio Minorista y Real Decreto 19912010, de 26 de febrero, por el que se regula la venta ambulante o no sedentaria.

- El artículo 92.1 de la Ley 33/2003, de 3 de noviembre, del Patrimonio de las Administraciones Públicas.

**RESUELVO,**

1. Autorizar la utilización especial del espacio municipal destinado a la instalación de tienda-camión de venta de alimentos durante las Fiestas de la Juventud que se celebrarán del 24 al 26 de mayo de 2024, frente a la Casa de Cultura Lekaio, a los siguientes solicitantes:

| Postu zk. / Puesto nº | Izen-abizenak / Nombre y apellidos | NA / DNI |
|---|---|---|
| 1 | De los Santos Pilo, José Bernardo | 410****5T |

2. Itxarote zerrendara gehitzea ondorengo eskatzaileak:

| Hurrenkera zk. / Puesto nº | Izen-abizenak/ Nombre y apellidos | NA/DNI |
|---|---|---|
| 1 | Machado Trinchete, Lucinda | X30****7D |
| 2 | Elazar, Zohra | Y18****4H |
| 3 | El Boukili Moumen, Driss | 580****5M |
| 4 | Clemente Piris, Sara | 443****0Y |

3. Onuradunak 2024ko maiatzaren 14ra bitarteko epea izango du hurrengo dokumentazioa aurkezteko:

a) NANaren fotokopia, IFK eta bere kontura lan egiteko eta bertan bizitzeko baimena atzerritarrentzat edo bertan bizitzeko eta lan egiteko baimena eman dezan beste dokumentazioren bat.

b) Gizarte Segurantzaren kotizazioetan alta eta azken ordainagiria.

3. El beneficiario tendrá de plazo hasta el 14 de mayo de 2024 para presentar la siguiente documentación:

a) Fotocopia del DNI, CIF o permiso de trabajo y residencia por cuenta propia para extranjeros o cualquier otra documentación que permita residir y trabajar.

b) Alta en cotizaciones a la Seguridad Social y último recibo.

ESKUae84d2e1-186f-4af5-93c4-03b3955d171a

c) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren alta eta azken ordainagiria.

c) Alta y último recibo del Impuesto de Actividades Económicas.

d) Jarduera horretan lanean diharduten pertsonak baditu, hauen lan harremana froga dezan dokumentazioa.

d) Si tiene personas empleadas en esta actividad, acreditación de la relación laboral de las mismas

e) Titularraren izenean jarduera egiteko baimenduta egon litezkeen pertsonen nortasuna egiaztatzen duen dokumentazioa.

e) Documentación acreditativa de la identidad de las personas que pudieran estar autorizadas a ejercer la actividad en nombre del titular.

4. 2024ko ordenantza fiskal arautzaileetako udalaren espazioak modu pribatuan erabili edo modu berezian ustiatzeagatiko tasen atalean (bide publikoen erabilera) xedatzen den bezala, eguneko eta $m^2$-ko 3,90 euroko tasa ordainduko da (guztira 140,40 €) eta baimena eskatutako tasaren ordainketa egiaztatu ondoren emango da. Horretarako **azken eguna 2024ko maiatzaren 21a izango da**.

4. Tal y como se establece en las ordenanzas fiscales reguladoras de 2024 en el apartado de tasas por utilización privativa o explotación especial de espacios municipales (uso de vías públicas), se abonará una tasa de 3,90 euros por día y $m^2$ (total 140,40 €) y la autorización se concederá previa justificación del pago de la tasa solicitada. **La fecha límite para ello será el 21 de mayo de 2024**.

5. Ebazpen honen berri interesdunari ematea.

5. Notificar la presente Resolución al interesado.

6. Geltoki kaleko 2. zenbakiaren aurrealdean, 2024ko maiatzaren 24tik 26ra ospatuko diren Gazte Festetan zehar kaleko salmenta postua jartzeko udalaren espazioa modu berezian erabiltzeko baimena ematea ondorengo eskatzaileei:

6. Autorizar a las siguientes solicitantes la utilización especial del espacio municipal para la instalación de un puesto de venta ambulante durante las Fiestas de la Juventud del 24 al 26 de mayo de 2024, enfrente del número 2 de la calle Estación:

| Postu zk. / Puesto nº | Izen-abizenak / Nombre y apellidos | NA / DNI |
|---|---|---|
| 1 | Moreta Perugachi, Martha Graciela | 580****4Z |
| 2 | Moreta Perugachi, Maria Cecilia | 730****3X |

7. Interesdunek 2024ko maiatzaren 21era bitarteko epea izango dute hurrengo dokumentazioa aurkezteko:

a. NANaren fotokopia, IFK eta bere kontura lan egiteko eta bertan bizitzeko baimena atzerritarrentzat edo bertan bizitzeko eta lan egiteko baimena eman dezan beste dokumentazioren bat.
b. Gizarte Segurantzaren kotizazioetan alta eta azken ordainagiria.
c. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren alta eta azken ordainagiria.

7. Las interesadas tendrán de plazo hasta el 21 de mayo de 2024 para presentar la siguiente documentación:

a) Fotocopia del DNI, CIF o permiso de trabajo y residencia por cuenta propia para extranjeros o cualquier otra documentación que permita residir y trabajar.

b) Alta en cotizaciones a la Seguridad Social y último recibo.

c) Alta y último recibo del Impuesto de Actividades Económicas.

ESKUae84d2e1-186f-4af5-93c4-03b3955d171a



San Juan, 5 - 20130 Urnieta Gipuzkoa - P2007700D 943 008 000 943 008 037 urnietakoudala@urnieta.eus urnieta.eus

d. Jarduera horretan lanean dihardute pertsonak baditu, hauen lan harremana froga dezan dokumentazioa.

e. Titularraren izenean jarduera egiteko baimenduta egon litezkeen pertsonen nortasuna egiaztatzen duen dokumentazioa.

8. 2024ko ordenantza fiskal arautzaileetako udalaren espazioak modu pribatuan erabili edo modu berezian ustiatzeagatiko tasen atalean (bide publikoen erabilera) xedatzen den bezala, eguneko eta m$^2$-ko 3,90 euroko tasa ordainduko da (guztira 140,40 €) eta baimena eskatutako tasaren ordainketa egiaztatu ondoren emango da. Horretarako **azken eguna 2024ko maiatzaren 24a izango da**.

9. Ebazpen honen berri interesdunari ematea.

10. Ebazpen hau iragarki taulan eta udalaren webgunean argitaratzea.

**Onuradunaren betebeharrak**

1. Instalazioak Udalak adierazitako espazio zehatza errespetatuz kokatuko dira.

2 Instalazioak eskuragarri dagoen espazioari egokitutako okupazio-neurriak izango dituzte, produktuak biltegiratzeko erabil daitekeen espazioa barne.

3 Erabiltzaileen eta bidaiarien segurtasuna bermatzeko beharrezko egonkortasuna eta segurtasuna izan beharko dute instalazioek.

4 Elikagaiak eta edariak baimendutako establezimenduetatik etorriko dira, higiene-baldintza egokietan garraiatuko dira, hotz-kateari eutsiko zaio, eta ez da bitarteko manipulaziorik egingo.

Elikagai eta edari guztiak behar bezala identifikatuta egongo dira beren etiketa, faktura edo albaranekin. Fakturak eta/edo albaranak ikuskaritzaren eskura egongo dira.

5 Sugarra edo bero-fokua duten instalazioak gehituz gero, su har dezakeen edozein elementutik metro bat baino gehiagora geratu beharko da, edo, hala badagokio, behar bezala babestuta, tenperaturak edo koipeak instalazio elektrikoei ez eragiteko moduan.

d) Si tiene personas empleadas en esta actividad, acreditación de la relación laboral de las mismas.

e) Documentación acreditativa de la identidad de las personas que pudieran estar autorizadas a ejercer la actividad en nombre del titular.

8. Tal y como se establece en las ordenanzas fiscales reguladoras de 2024 en el apartado de tasas por utilización privativa o explotación especial de espacios municipales (uso de vías públicas), se abonará una tasa de 3,90 euros por día y m$^2$ (total 140,40 €) y la autorización se concederá previa justificación del pago de la tasa solicitada. La fecha límite para ello será el 24 de mayo de 2024.

9. Notificar la presente Resolución a las interesadas.

10. Publicar la presente resolución en el tablón de anuncios y en la página web municipal.

**Obligaciones de la persona beneficiaria**

1 Las instalaciones se ubicarán respetando el espacio concreto señalado por el Ayuntamiento.

2. Las instalaciones dispondrán de medidas de ocupación adecuadas al espacio disponible, incluido el espacio disponible para el almacenamiento de los productos.

3. Las instalaciones deberán disponer de la estabilidad y seguridad necesarias para garantizar la seguridad de los usuarios y de los pasajeros.

4. Los alimentos y bebidas procederán de establecimientos autorizados, se transportarán en condiciones higiénicas adecuadas, se mantendrá la cadena de frío y no se realizarán manipulaciones intermedias.

Todos los alimentos y bebidas estarán debidamente identificados con sus etiquetas, facturas o albaranes. Las facturas y/o albaranes estarán a disposición de la inspección.

5. En caso de añadirse instalaciones con llama o foco de calor, deberá quedar a más de un metro de cualquier elemento incendiable o, en su caso, debidamente protegido de forma que la temperatura o la grasa no afecten a las instalaciones eléctricas. Cualquier aparato a

ESKUae84d2e1-186f-4af5-93c4-03b3955d171a

Gas bidezko edozein aparatu homologatuta egongo da, behar besteko aireztapena izan dezan.

6 Foodtruckak gutxienez 21A-113B eraginkortasuneko su-itzalgailu bat izango du, behar bezala seinaleztatuta.

7 Baimen honen titularrak arduratuko dira instalazioak behar bezala erabili eta garbitzeaz. Nolanahi ere, merkaturatutako produktuei eta instalazioei buruzko araudi espezifikoek ezartzen dituzten baldintza higieniko-sanitarioak edo bestelakoak bete beharko dituzte esleipendunek.

8 Erabat debekatuta dago 18 urtetik beherakoei edari alkoholdunak eta tabakoa saltzea eta ematea. Debeku hori adierazten duen kartel bat jarri beharko da, ikusteko moduan.

9 Ordutegia: 10:00etatik 03:00etara.

10 Debekatuta dago jaietako bizikidetza edo normaltasuna arriskuan jar dezaketen kartelak edo sinboloak erabiltzea. Kasu horretan, udal-agenteek beharrezkotzat jotzen dituzten kautelazko neurriak hartuko dituzte.

gas estará homologado para disponer de ventilación suficiente.

6. El foodtruck deberá contar, al menos, con un extintor de eficacia 21A-113B debidamente señalizado.

7. Los titulares de esta autorización serán responsables del correcto uso y limpieza de las instalaciones. En todo caso, los adjudicatarios deberán cumplir las condiciones higiénico-sanitarias o de otra índole que establezcan las normativas específicas sobre productos e instalaciones comercializados.

8. Queda terminantemente prohibida la venta y suministro de bebidas alcohólicas y tabaco a menores de 18 años. Deberá colocarse en lugar visible un cartel que indique dicha prohibición.

9. Horario: de 10:00 h. a 03:00 h.

10. Se prohíbe el uso de carteles o símbolos que puedan poner en peligro la convivencia o la normalidad de las fiestas. En este caso, los agentes municipales adoptarán las medidas cautelares que consideren necesarias.

## Erabaki honen kontra egiteko moduak

Administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA aurkez dezakezu Administrazioarekiko Auzien Jurisdikziotik dagokion Administrazioarekiko Auzien Epaitegi egokian BI HILABETEKO epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta Herri Administrazioen Araubide Juridiko Arruntaren urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114. artikuluarekin bat etorriz.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari HILABETEKO EPEAN, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita.

Urnieta, 2024ko apirilaren 11a.

Idoia Arévalo Benito, Idazkaria.

## Modo de oponerse a esta resolución

Contra el citado acto expreso, que es definitivo en vía administrativa, podrá Vd. interponer en el plazo de DOS MESES, contados desde el día siguiente al de la recepción de la presente notificación, RECURSO CONTENCIOSO ADMINISTRATIVO ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo que corresponda de la Jurisdicción Contencioso Administrativa, a tenor de lo establecido en los Arts. 8 y 46 de la Ley 29.1998 de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, en concordancia con el Art. 114 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre, del Procedimiento administrativo Común de las Administraciones Públicas.

No obstante, con carácter potestativo y previo al Recurso Contencioso Administrativo señalado en el párrafo anterior, contra la resolución expresa que se le notifica, podrá Vd., interponer RECURSO DE REPOSICION, ante el mismo órgano que la dictó, en el plazo de UN MES que se contará desde el día siguiente al de la fecha de la recepción de la presente notificación.

Urnieta, 11 de abril de 2024.

Idoia Arévalo Benito, Secretaria.



San Juan, 5 - 20130 Urnieta Gipuzkoa - P2007700D 943 008 000 943 008 037 urnietakoudala@urnieta.eus urnieta.eus

EKS | CSV: ESKUae84d2e1-186f-4af5-93c4-03b3955d171a
*Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07210*
*Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07210*

# Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| **Titulua / Título:** | 2024SORO0003-JAKINARAZPENA alkatea/NOTIFICACION alcalde (URNIETAKO |
|---|---|

**Digitalki sinatua** / Firmado digitalmente por:

Urnietako udala

**AREVALO BENITO,IDOIA**

**Idazkaria**
Secretaria

**Data** / Fecha: 2024/05/07 13:47:38